

EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN

7. BATZARRAREN EBAZPENA

Euskal Herriko Ikastolok 2024ko ekainaren 22an bukatu dugu gure 7. Batzarra.

114 Ikastolek, Ikastolen mugimenduko langileek eta Ikastolen lagun diren zenbait kidek hartu dugu parte prozesuan.

Zazpi eremutan banatu ditugu gure erronkak eta etorkizuneko ildoak. Neurri zehatzak ere zehaztu ditugu zenbait eremutan. Etorkizunera begira jarri gaituen prozesu aberats honen bukaeran honako hau da Euskal Herriko Ikastolak erabaki duguna:

1. IKASTOLA EREDUA

Ikastolok argi utzi dugu gure eredua ezinbestekoa dela etorkizuneko Euskal Herria eraikitzeko. Herriatik eta herriarentzat sortutako proiektua da gurea, iturri zaharretik etengabe ur berria edaten duena. Datozen urteetan Ikastola eredua eguneratu, egonkortu, zabaldu eta aldarrikatuko dugu. Ikastola-ereduaren oinarrietan sakondu eta balioak eguneratuko ditugu.

2. IKASTOLEN ELKARTEA

Ikastolen Elkartearen garrantzia aitortu eta azpimarratu dugu. Ikastola guztien aterpe, erreferentzia eta interlokutore izatea dugu helburu. Ikastolon mugimendua indartuko dugu. Euskal Hezkuntza sistema burujabea eraikitzeko ekarpenak egiten jarraituko dugu. Gure gobernantza demokratikoan sakonduko dugu eta Ikastolen autonomia eta interkooperazioa bultzatuko ditugu.

3. LURRALDE TASUNA

Euskal Herri osoko mugimendu-izaera indartuko dugu datozen urteetan. Horretarako, egun ditugun zenbait marko indartuko ditugu eta ditugun tresnak (Estatutuak, antolaketa,

barne-araudia...) berrikusiko ditugu. Izaera nazionala indartuko dugu, betiere, lurralde bakoitzaren izaera errespetatuz..

4. IKASTOLEN IRISMENA

Ikastolon irismena handitu nahi dugu. Alde batetik, Euskal Herriko egoera sozial berriei erantzuteko eta, bestetik, gure eskaintza hedatzeko.

Egun, Euskal Herrian bizi diren ikasle guztientzako aukera erreala izateko neurriak hartuko ditugu eta, honekin batera, Ikastola berriak, ikasketa-ziklo berriak eta modalitate berriak irekiko ditugu.

5. PERTSONAK ERDIGUNEAN

Ikastolon mugimendua osatzen dugun pertsonak erdigunean jarriko ditugu. Izan ikasleak, langileak edota gurasoak. Horretarako, Ikastolon Hezkuntza Marko Orokorrean zehaztutako pertsona-eredua hartuko dugu oinarri eta formazioan eta elkar-zaintzan urratsak egingo ditugu. Ikastolon inklusio-marko propioa garatuko dugu.

6. HEZKUNTZA-PROIEKTUA

Hezkuntza Proiektua sendotuko dugu. Hasi ikasmaterialetatik eta aholkularitza pedagogikoraino.

Euskal Herriko gizarteak dituen kezkei erantzuna emango diegu Ikastolon Hezkuntza Proiektutik. Hasi, euskal curriculum eguneratzetik, ikasmaterialen nolakotasunarekin jarraitu eta digitalizazioan burujabetzarako eta tresna digitalen integrazio pedagogikoaren inguruko posizioa hartuko dugu.

Hezkuntza formalean eta ez formalean garatuko dugu gure hezkuntza-proiektua.

7. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA

Euskaldun osoak heztea dugu helburu. Horretarako, euskal kulturaren sorkuntzan eta transmisioan lan-ildo berriak proposatuko ditugu. Aisialdiari arreta berezia jarriko diogu euskalduntasunean, eta gure ikasleen euskararekiko konpromisoa berariaz landuko dugu. Ikastoletako hizkuntza-proiektuak eguneratuko ditugu egoera soziolinguistiko berrira egokitzeke. Eta Euskal Herri osorako euskararen ofizialtasuna aldarrikatuko dugu.



Hau da, biharko Euskal Herria eraikitzeko behar ditugun biharko Ikastolak eraikitzen jarraituko dugu. Guztion ahaleginarekin, konpromisoarekin eta ilusioarekin. Herrigintzarekin eta euskalgintzarekin elkarlanean.

